

BALOREZKO PROPOSAMENA:

Gure proiektuaren helburua AI bidez elkarriketak egiteko robot txikiak sortzea da, gurpilekin pertsoneri jarraitzeko eta haiei laguntzeko. Robotek, adibidez, Alzheimerre duten pertsonekin harremanak izateko aukera emango dute, familia askok ez baitute beti aukera horretarako. Gainera, gaur egun pertsona askok bakarrik bizi dira, batez ere adinekoek. Produktu honekin lortu nahi dugun helburua bakardade sentimendua murriztea eta isolamenduaren ondorioak saihestea da. Robotek eguneroko laguntza pertsonalizatua eskaintzeko gaitasuna izango dute, hala nola gogorazpenak, elkarriketak eta segurtasuna ematea. Adibidez, medikamentua hartu behar dutenei gogoraztea eta 112ra deitzeko gaitasuna izango duen robota izango da. Produktuari Lagunbot deituko diogu eta hau izango litzateke:



“Adineko pertsonen bakardadea murrizteko lan egiten dugu berrikuntzaren bidez. Ez dugu kasualitateetan sinesten, teknologiak eskaintzen dituen aukeretan baizik.”

Gure proiektuak adinekoen bakardadea eta isolamendua arintzea du helburu, izan ere, askotan adinekoek bakardadea sentitzen dute eta horrek osasunean eragin negatiboa izan dezake. Horrez gain, Alzheimerre edo demetzia duten pertsonak eguneroko estimulua behar dute, baina familiak ez du beti aukera edo denbora horretarako. Proiektuaren berrikuntza nagusia AI bidez elkarriketa atseginak egitea da, erabiltzaileari laguntza emozionala eskaintzeko, eta robotak mugimendua eta jarraipena ahalbidetuko du, etxean erabiltzailea jarraitzeko eta beti gertu egoteko. Halaber, laguntza pertsonalizatua eskainiko du, gogorazpenak eta eguneroko laguntza emanez. Hori lortuko da kanta ezagunak erreproduzitzen haien gaztaroan entzun dituzten abestiak erabiliz oroitzapenak gogora ekartzeko. Jolas interaktiboetara jolasteko aukera ere izan gu gure robotak, zentzumenak praktikan jartzeko. Bezeroei prezio eskuragarri bat eskaintzen diegu, 500€, adinekoentzako laguntza eroso eta segurua, eta erabiltzeko erraztasuna, egokituta adinekoen beharrianetara. Robotak lehenengo urte bietarako segurua izango du, apurtu edo arazoak izanez gero. Instalatzeko eta azaltzeko gure langileen laguntza eskatu ahal izango da, funtzionamendu hobeago bat ziurtatzeko. Faktore nagusiak interakzio eta estimulazioaren bidez adinekoen ongizatea hobetzea eta bakardadearen aurkako lagun bat eskaintzea dira, erabiltzaileei babesa eta animoa emateko.